

Kontsultaz  
informatzeko  
eta parte  
hartzeko  
proposamen  
bat



---

Hartu parte kontsultan - 2008ko ekaina



Egilea: Lokarriren Koordinazio Batzordea  
Argitaratzen duena: Lokarri  
Inprimaketa: Antza  
Lege gordailua: SS-1123/2008

araba

Arana, 7- 7 bulegoa. 01002 Vitoria-Gasteiz  
tlf. 945 25 61 76 fax. 945 28 00 97

bizkaia

Venezuela Plaza 1-1. 48001 Bilbo  
tlf. 94 435 51 17 fax. 94 424 47 24

gipuzkoa

Portuetxe, 39-2. 20018 Donostia  
tlf. 943 000 600 fax. 943 000 603


nafarroa

Francisco Bergamin, 2-3. 31002 Iruñea  
tlf. 948 22 71 22 fax. 948 22 36 39

[info@lokarri.org](mailto:info@lokarri.org)

[www.lokarri.org](http://www.lokarri.org)





---

# kontsultaz informatzeko eta parte hartzeko proposamen bat

«Hartu parte kontsultan» ekimena aurkeztu zuen Lokarrik —akordio eta kontsultaren aldeko herritar-sarea— urtarrilean. Ekimenaren helburu nagusia zen herri-kontsultari buruzko partaidetza-, eztabaida- eta hausnarketa-gune bat sortzea, betiere normalizazio politikorako prozesua desblokeatzeko asmoz. Kontsulta-deialdiarekin, herritarren borondatea bihurtuko da protagonista; hori dela eta, komeni da argiea hari buruzko zalantzak eta iritzi publikoa prestatuz joatea kontsulta-egunerako.

Herri-kontsultaren deialdiarekin lotutako zenbait agiriren argitalpena du oinarri ekimenak. Martxoan plazaratu genuen lehena —«Komenigarria ote herri-kontsulta egitea»—, non jaso genituen «Hartu parte kontsultan» galde-sortako emaitzak eta ondorioak, gure egoera politikoa ederki ezagutzen duten bi adituren iritziak eta gai honi buruz Lokarrik ateratako ondorioak. Ekainean argitaratu genuen bigarrena ([www.lokarri.org](http://www.lokarri.org) web orrian irakurri, edo 902 42 10 10 telefonora deitu eta eskatu), non aztertu genuen Eusko Jaurlaritzak aurkeztutako herri-kontsultaren eta horren antzekoen legezkoatasun-maila. Horrez gain, aztertu genuen zer dioten Espainiako Konstituzioak eta Gernika, Andaluzia eta Kataluniako estatutuek erreferendumen eta kontsulten arautzeaz, eta Suitza, AEB eta Austriako adibideak ikusi. Argitalpen horretan, ondorio hau plazaratu zuen Lokarrik: legezkoa da kontsulta deitzea. Horrenbestez, lege orokor bat proposatu zuen Lokarrik herri-kontsulten deialdiak arautzeko.

Hirugarren argitalpen honetan —«Hartu parte kontsultan» serieko azkena—, kontsultan parte hartzeko eta hari buruzko informazioa emateko proposamen bat ageri zaigu. Heldutasun demokratikoaren adibidetzat du kontsulta argitalpenak, eta zergatik den integratzailea azaltzen du.

Argitalpenaren bigarren zatian, gai zehatzagoi ekiten die argitalpenak, eta proposamen bat egiten die EAEko gobernu, legebiltzar eta alderdi politikoei kontsultaren edukiei buruzko informazioa hedatu eta herritarren partaidetza sustatzeko. Hiru jardunbide proposatzen ditugu: 1) zuzeneko informazioa, 2) eztabaida eta partaidetza, eta 3) segimendua eta ebaluazioa.

Prentsaurreko bidez aurkeztu genuen proposamen hori, ekainaren 20an; azken argitalpen hau, berriz, Eusko Legebiltzarreko osoko bilkuraren aurretik idatzia da, Eusko jaurlaritzak bul-tzatzen duen herri-kontsultaren gaineko lege-proposamena eztabaidatu eta bozkatzeko bilkura aurrekoa alegia. Aukera guztiak zabalik daude: gerta daiteke Legebiltzarrak ez onartzea propo-samena; gerta daiteke Auzitegi Konstituzionalean errekurtoa aurkeztu eta kontsulta-deialdia baliogabetzea... Egoera hipotetiko horietako edozeinetan erabiltzeko proposamena duze Lokarrik aurkezten duen hau: informazio- eta partaidetza-ariketa da, beharrezko tresna indarke-riarik eza, elkarrizketa, akordioa eta herri-kontsultaren alde egiteko, horiek baitira bakearen eta normalizazio politikoaren bidean aurrera egiteko printzipioak.

# Heldutasun demokratikoaren adierazle da herri-kontsulta

Sarritan, zuzeneko demokraziari, erreferendumei, herri-kontsultei eta antzekoei buruz ari garela, badirudi utopia baten gainean mintzo garela, gizarte parte-hartzaile, informatu eta askea eratzea ezinezkoa balitz bezala. Alabaina, mundu osoan gero eta hedatuagoa da erreferendumen eta herri-kontsulten erabilera, serie honetako aurreko argitalpenetan aipatu izan dugunez. Izan ere, zuzeneko demokrazia garatzeko ezinbesteko tresnak dira horiek, demokrazia tradizionalak bete ezin dituen beharrian sozialak asetzeko sortuak. Bestalde, ez ditugu kontrajarriztat hartu behar bi kontzeptu horiek, zuzeneko demokrazia eta ordezkatzaila alegia, baizik eta elkarren osagarri. Zuzeneko demokraziak gizartearen zenbait premia eta aldarrikapen eramaten ditu politikaren plazara, eta gobernu eta parlamentuei dagokien lanari bidea markatzen dio. Erreferendum eta kontsulta bidezko zuzeneko demokraziari esker, gai politiko garrantzitsuenetan parte hartu ahal dute herritarrek; horrez gain, galazari egiten du gizartearen nahien eta politikagintzaren arteko etena eguneroko jarduera politikoak eragiten duen etsipena dela eta.

Badute zuzeneko demokraziako tresna horiek beste onura aipagarri bat ere: kontsultei esker, helduago eta eraginkorrago bihurtzen dira herritarrek. Gizarte bati kontsulta bat proposatzen bazaio, hautesle guztiak hausnarketak gai horretara biltzen dira, bai baitaki hautesleak bere erantzunaren esku dagoela honelako edo halako politika egitea gero. Erantzukizun- eta erabakimen-ariketa egiten du gizarteak; beraz, kome ni da gizarteak botere hori behar bezala erabiltzen ikastea. Erantzukizun eta botere gehiagok, finean, gizabidezko kontzientziaren hobetzea dakarte.

Zenbait baldintza bete behar ditu, baina, herritarren erantzukizun-ariketa horrek. Ez da bidezkoa gizarteari bere nahia zein den galdetzea ez bazaizkio iritzia osatzeko tresnak eta baliabideak ematen.

**1- Denbora behar du kontsultak.** Demokrazia ordezkatzaila baino konplexuagoa da zuzeneko demokrazia. Ondo asko dakizkigu demokrazia ordezkatzailaren mekanismoak, zeinek hauteskunde-kanpainak dituzten goi-adierazpide. Herri-kontsulten sustatzaileek, ordea, ahalegin handia egin behar izaten dute herritar gehienak berenganatzeko. Hauteskunde «normal» batzuetan, aski izaten da emaitza onak eskuratzea, eta alderdien helburua hautesle gehienek babesa jasotzea izaten da. Herri-kontsulta baten helburua, ordea, hautesleen erdien gehi baten babesa jasotzea da. Hortaz, informazio-lan handia egin behar izaten da herritarren partaidetza bultzatu eta haien babesa jasotzeko.

**2- Diseinu erraza izan behar du kontsultak.** Herri-borondatearen zuzeneko adierazpena erraztu egiten du kontsultak baldin eta galdera bat

edo oso gutxi badauzka, argi idatziak, teknizismo konplexurik ez badu eta garrantzi bereziko gaia proposatzen badu. Alde horretatik, herritarrek oso garrantzizkotzat dituzten gaiak buruzkoak izaten dira parte-hartze handieneko kontsultak. Aitzitik, lege oso konplexuei buruzko erreferendumez, edo herritarrek oso garrantzizkotzat ez dituzten gaien gainekoek ez dute irrika bizirik eragiten, eta handia izaten da horietan absentszia.

**3- Zenbat eta kontsulta gehiago deitu, orduan eta konplexuagoa izan daiteke gaia.** Zuzeneko demokraziako ariketa hori zenbat eta gehiagotan egin, are konplexuagoa eta sakonagoa da herritarrei kontsulta dakiekeen gaien zerrenda. Ohiz kanpoko neurritzat erabiltzen den lekuetan, gizartearen geroa erabakiko duten gai nagusiei buruz bakarrik galdetu ohi da. Sarri erabiltzen den tokietan, aldiz, era guztietako gaiak erabakitzen dira kontsulta bidez. Serie honetako aurreko argitalpenean (herri-kontsulten legezkotasunari buruzkoa) azaldu genuenez, Suitzan, AEBn... sarri deitzen dituzte erreferendumak eta kontsultak, era guztietako gaien gainean: zergak, ingurumen-politika, azpiegiturak... Gizarteari galdetzeak berekin dakarren heldutasun-prozesuak jarduera politikoan parte hartzeko kontzientzia sortzen du herritarren artean. Hori dela eta, gatazka sozial nagusiak gizalegez konpontzeko erabil daiteke tresna hori, kontsulta alegia.

## Kontsultak eta tekn

Suitzan, urtean bospasei alditan izaten dituzte hauteskundeak, erreferendumak edo herri-kontsultak. Maiztasun hori dela eta, baliabide eroso eta errazak jarri behar dira bozkatzeko. Orain arte, hautesleen % 95 inguruk posta bidezko botoa eman ohi zuen; kan-toi batzuetan, ordea (Genevan, adibidez), Internet bidez botoa emateko probak egin dituzte.

Segurtasunak bermatzen ditu boto elektronikoen arrakasta eta legitimotasuna: erregistratu egin behar da boto bakoitza; boto-emai-le bakoitzaren anonimotasuna ziurtatu egin behar da; bortxaezina behar du izan PC bakoitzaren eta hauteskunde-bulegoaren arteko loturak, eta bermatu behar da inork ez ematea botorik beste inoren orde. Bestalde, erraza izan behar du boto-prozedurak. Laburbilduz, honela funtzionatzen du sistemak:

# Integratzaileak dira herri-kontsultak?

Herri-kontsultaren aurka egiteko erabiltzen ari den arrazoi nagusietako bat da euskal gizartea zatitzeko arriskuan jar dezakeela. Ohartuko zinetenez, ez du adostasun handirik sortu alderdi politikoaren artean bake eta normalizazio politikorako prozesua desblokeatzeko herri-kontsulta deitzeak. Askoz hobe zatekeen alde guztien arteko adostasuna, inor bazterrera utzi gabe, gero kontsulta bidez berresteko. Baina ezin izan da eratu oinarritzko adostasun hori, batez ere alderdi batzuek ez zutelako benetako elkarrizketa-prozesurik abiarazi eta hitzarmen politiko batera iritsi. Orain diote, berriz, kontsultak zatitu eta erdibitu egiten duela gizartea.

Herri-kontsulta batek ez du, berez, gizartea zatitzen. Lepora dakioke, agian, unerik egokienean ez datorrela, edo edukia ez dela aproposena gizarteak hau edo bestea argiro erabakitzeke, baina, demokraziaren ikuspegitik, kontsulta batek ez du gizartea zatitzen. Izatekotan ere, gizarteko zatiketarik areagotzeko arrisku handiagoa legoke herritarrei aukera bat bakarrik (eta behar den adostasunik gabe) jarriz gero etorkizuneko proiektu politikoei buruz. Aldiz, bakea eta normalizazio politikorako prozesua desblokeatzeko kontsultarik egiten bada, arrazoi horrek ez du balio, are gutxiago jakinik zer eskatzen zaien herritarrei: alderdi politikoei eskatzeko bultzata deatela akordioa ekarriko duen negoziazio-prozesu bat.

Bizikidetzaren hitzarmen oinarritzko bat behar du, hain justu ere, euskal gizarteak, bake bidez eta demokratikoki kudeatzeko aniztasuna. Bizikidetzaren hobetzea galarazi egiten du euskal gizartea elkarrizketa eta akordioa blokeatzen dituen egoeran edukitzeak. Europako leku askotan jarduerak demokratiko legitimoak, normalean eta ohikoa da herritarrei galdetzea beren arazoak konpontzeko oinarritzko printzipioei buruz. Kontsultak ez du gizartea zatitzen; elkarrizketa eta akordiorik ezak eragozten du zatiketarik gaitzeko.

Kontsultaren emaitza integratzailea izatea, hori da funtsezkoa, gutxiengoaren oinarritzko eskubideak urratu gabe legitimatzen baitu gehiengoaren borondatea. Eusko Jaurlaritzaren proposamenari dagokionez, politikoki eztabaidagarri gerta liteke aldeko zein kontrako emaitza, baina ezin zaio egotzi bizikidetzaren eta demokraziaren oinarritzko printzipioen aurkakoa denik. Noski, galdeketa horrek baiezkoaren, ezezkoaren, abstentzioaren eta boto zuriaren edo balio gabearen aldekoen artean banatuko du gizartea, iritzia eskatzen zaion beste zeinahi bozketatan bezalaxe.

Integratzailea, bateratzailea izan dadin kontsulta, bi baldintza hauek bete behar ditu: 1) handia izatea parte-hartzea kontsultaregunean, eta 2) hausnarketa-, heldutasun- eta erantzukizun-prozesu baten emaitza izatea herritarrek galderei ematen dieten erantzuna. Horretarako, kontsulta egin aurretik, informazio-lan handia egin behar da, eta herritarren partaidetza eta eztabaida sustatu kontsultaren edukien gainean. Aurreko ataleko arrazoibideari jarraiki, denbora eta, batez ere, bitartekoak behar dira herritarrek iritzi garbia izan dezaten kontsulta-egunean eman beharreko botoaren gainean.

Alde horretatik, badu hutsunerik, Lokarriren iritziak, Eusko Jaurlaritzaren lege-proiektuak, hauteskunde-prozesu arrunt bateko mekanismoak bakarrik aurreikusten baititu. Hauteskundeetan baino erantzukizun eta desafio handiagoa bereganatzen duete herritarrek kontsulta honetan, oso gai garrantzitsuei buruz (bakea, normalizazio politikoa...) duten iritzia adierazi behar baitute. Bestalde, zuzenean demokraziako ariketa berria dugu; ez gaude horretara batera ohituak. Horregatik, bada, Lokarri uste du kontsultari buruzko informazioa emateko eta partaidetza sustatzeko plan bat abiarazi behar lukeela, ofizialki, Eusko Jaurlaritzak.

## teknologia berriak

- 1) Boto-emaile bakoitzak boto elektronikoa emateko txartel bat jasotzen du etxean, zenbait pasahitzekin (pertsonalak eta besterenezinak).
- 2) Boto elektronikoko web orrira sartu behar du boto-emaileak, eta kontsulta sartu. Boto-paper elektronikoa azaltzen zaio pantailan.
- 3) Saguarekin «bai» edo «ez» aukeratu behar du boto-emaileak, edo zuri utzi (abstentzioa).
- 4) Boto-emaileak identifikatzeko, kode berri bat eta zenbait datu (jaioteguna, jaioterria...) eskatzen dizkio sistemak.
- 5) Botoa erregistratu dela egiaztatzen du sistemak.
- 6) Posta elektronikoz eta telefonoz argi ditzakete boto-emaileek bozketaren sistema horri buruzko zalantzak.

# Informazio-eta lankidetzaren proposamena kontsultadela eta

Hiru jardunbide eta hamar ekimen zehatz ditu proposamen honek, guztiak ere kontsultari buruzko informazioa zabaltzea eta partaidetza sustatzea dutela helburu. Udan zehaztu beharko dugu plana, eta aurtengo irailean jarri martxan. Izan ere, jarritako datan (urriak 25) egiten bada kontsulta, hilabete eta erdi eskas izango dugu proposamena aurrera eramateko. Proiektu handia da, bestalde, eta halako aurrekontu berezi bat onartu beharko da ekimen guztiak gauzatzeko.

Ekainaren 20an aurkeztu zuen proposamen hau Lokarrik, prentsareko bidez, eta egun horretan bertan bidali alderdi politiko eta erakunde publikoei, azter eta gara zezaten. Lokarriren iritziz, Legebiltzarrean onartutako legearen aurkako inkonstituzionaltasun-errekurtsorik aurkezten bada ere martxan ipini behar da plana, herritarren partaidetza sustatzeko eta haiei informazioa helarazteko inbertitzen diren denbora eta baliabideak lagungarri baitira euskal gizartearen erantzukizuna eta heldutasun demokratikoa areagotzeko. Are gehiago: azkenik kontsultarik egiten ez bada ere, ezinbestekoa da plan hau, edo antzekoren bat, gizartea ohartarazteko partaidetza-bide berrien garrantziaz; herri-kontsultenaz, adibidez.

## 1) Zuzeneko informazioa

Ekimen honen helburua da zuzeneko informazioa (eta didaktikoa) eskaintzea kontsultari buruz, batez ere galderen edukiei eta kontsulta egiteko mekanismoei dagokienez. Herritar guztiei dago zuzendua informazio hori. Inpartzialak behar dute izan mezuek, hau da, ez dute aldeko edo aurkako botorik eskatu edo iradoki behar, baina botoa eman dezaten eskatuko zaie herritarrei.

1- Kontsultari buruzko liburuxka bat argitaratzea eta banatzea EAEko etxe guztietako postontzietan. Milioi bat ale, gutxi asko, zabalduko ditugu, euskaraz eta gaztelaniaz.

2- Hedapen-kanpaina komunikabideetan: iragarkiak prentsa, irrati, telebista eta Interneten. Postontzietara sartzen den liburuxka, bestalde, egunkariekin batera ere banatu ahal da.

3- Kontsultaren edukiak zabaltzea estatu espainiarrean eta nazioartean. Helburua da informazio-kanpaina objektiboa egitea edukiei horien gainean. Estatu espainiarrari dagokionez, iragarkiak jarriko ditugu hedabideetan, kontsultaren galderak eta xedeak ezagutarazteko, bereziki. Nazioartean, berriz, komunikazio-plan bat eratu eta hedabide nagusienekin harremanetan jarriko gara, eduki horiek argi azaltzeko iritzi publikoari.

4- Eztatidak komunikabide publikoetan, «Galdera bat dut zuretzat» formatuarekin, hau da, herritar arruntek politikariei galdera egin eta zailtzak azaltzeko moduan. Proposatzen dugu zenbait saio antolatzea, bai lehendakariak bai Eusko Legebiltzarrean ordezkaritza duten talde guztietako bozeramaileek parte hartzen dutela.

5- Web orri berezi bat sortzea kontsultaren edukiak azaltzeko. Proposatzen dugu web orri bat egitea, erabat berria edo Konpondu.net-i lotua, non kontsultaren edukia azalduko den, baita komunikabideetan gaiari buruz plazaratzen diren informazio guztiak jasoko ere. Euskara eta gaztelaniazko atalez gain, ingelesez eta frantsesez ere eman behar du informazioa, labur bada ere, orri horrek.

## II) Eztabaida eta partaidetza

Ekimen honen helburua da tresnak jartzea herritarren esku, kontsultako galderei buruz hausnarketa egin, zalantzak azaldu eta zer bozkatu erabaki dezaten.

6- Udal foroak sortzea. Konpondu-k orain arte metatutako eskarmentuaz baliatuko dira foroak. Ehun bat udalek egin dute bat ekimenarekin, eta dagoeneko 70 bat foro elkarrizketa-, entzute- eta partaidetza-foro egin dira. Kontsulta-deialdia dela eta, foro gehiago antolatuko dira, galderei buruzko iritziak eztabaidatu eta alderatzeko.

7- Kontsultari buruzko argitalpen bat plazaratzea. Lehen aipatutako liburuxkak baino informazio zehatzagoa izango du agiri honek. Horrez gain, udal-foroetan erabiltzen den elkarrizketa- eta entzute-metodo bat ere izango du, taldekako eztabaidak sortzeko (elkarte, ikastetxe, lantoki, familia, lagunarte eta abarretan).

8- Ehun hitzaldi kontsultari buruz. EAeko herri eta hiri nagusietan emango dira, alderdi politiko, sindikatu, elkarte eta zuzeneko demokrazia eta parte-hartzailean aditu direnen partaidetzarekin. Kontsultari eta haren edukiari buruzko iritziak alderatzeko aukera emateaz gain, herritar guztiek zabalik duten eztabaidagunea izango dira hitzaldiak, hau da, hitz egin eta zalantzak, kritikak eta ekarpenak azaltzeko aukera izango dute bertaratzen direnek.

9- Eztabaida-foroak Interneten. Kontsultaren edukiei buruzko informazioa ematen duen web orriak eztabaida-foro publikoak ere izango di-

tu, non herritar orok izango duen aukera bere iritzia emateko kontsultari eta haren edukiei buruz.

## III) Ebaluazioa eta segimendua

Kontsultari buruzko argitalpen-serie honetan, behin eta berriro aldarrikatu du Lokarrik zuzeneko demokraziaren tresna hori normalizatu eta gero eta maizago erabiltzeko premia, zuzenean jakiteko herritarren iritzia dagozkien gai nagusiei buruz. Horregatik, komeni da deialdi hau aztertu eta ebaluatzea, gerora egiten direnetarako baliagarri izan daitezen oraingo honetan egiten diren akatsak eta zuzen ematen diren urratsak.

10- Nazioarteko segimendu- eta ebaluazio-batzorde bat sortzea. Batzorde horretako kide izango dira erreferendum, kontsulta eta zuzeneko demokraziako jardunetan eskarmentua duten zenbait aditu. Egin-kizuna: herritarrei informazioa eman eta haien partaidetza sustatzeko ekimen hau ikuskatzea, baita kontsulta bera ere. Ondorio-txosten batekin amaituko dute lana adituek, beste herri-kontsulta batzuk deitu eta egiteko gomendio eta guzti.

---

# Hartu parte kontsultan

Argitalpen honekin amaitzen da «Hartu parte kontsultan» seriea. Alderdi politiko, erakunde publiko eta mugimendu sozialei igorriko diegu argitalpena, gure gizartearen zati baten iritzia izan dezaten. Uda eta gero, izango du jarraipenik Lokarriren hausnarketa-lan honek, eta ekimen eta agiri gehiago plazaratuko ditugu.

Argitalpen hau eta/edo lehendik argitaratutakoak jaso nahi badituzu, deitu 902 42 10 10 telefono-zenbakira, edo bidali mezu bat [lokarri@lokarri.org](mailto:lokarri@lokarri.org) helbidera. [www.lokarri.org](http://www.lokarri.org) helbidetik ere jaitsi dezakezu. Argitalpen honi buruzko zenbait galdera aurkituko dituzu helbide horretan, zuen iritzia asko estimatzen baitugu.

---

## Lagundu nahi baduzu... zer aukerak dauzkazu?

### Lokarriko laguntzaile izateko izena eman

Lokarriko laguntzaileak bere ohiko funtzionamenduan edo kanpaina eta ekimen zehatzetan parte hartzeko nahia agertu duten pertsona guztiak dira.

### Ekarpen ekonomiko bat egin

Lokarriari lagun diezaiokezu ekarpen ekonomikoren bat eginda.

### Lokarriko bazkide egin zaituz

Bazkideek hileroko kuota bat ordaintzen dute Lokarriren jarduera ordaintzeko. Antolatzen diren ekintza guztietara gonbidatuta daude eta aldizkariko informazioa jasotzen dute, hileroko aldizkariak eta argitaratzen diren argitalpen guztiez gain.

### Aipatu edozein aukera horietarako jar zaituz **hartu-emanetan Lokarriarekin**

Tfnoa: 902 42 10 10  
E mail: [info@lokarri.org](mailto:info@lokarri.org)  
Helbidea:  
Lokarri  
69 posta-kutxa  
31080 Iruñea

